

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresako zatririk garrantzitsuenetarikoa bezeroak dira, beraz funtsezkoa da betiko bezeroak mantentzeaz gain, jende berria erakartzea. Hori dela eta, ezinbesteko ikusten dugu bezeroekin gertuko harremana mantentzea, eroso senti daitezen. Orduan, bezeroekiko harreman atsegina izango dugu.



Aurretiaz esan bezala, bezeroekin harreman pertsonala mantenduko dugu, gugandik gertu senti daitezen. Honetarako, webgunea erabiliko dugu, edota telefonoa nahiago badute. Bestetik, publizitateaz baliatuko gara bezero berriak lortu eta haratago iristeko. Garrantzitsua izango da baita harpidetutakoek aplikazioei buruz utziko duten iritzia, jende askok bertan begiratuko baitu aplikazioa deskargatu baino lehen, eta beraz inpresio ona eragin beharra dugu.

Bezeroengana nola iritsiko garen pentsatzean, argi daukagu daukaten arazoaren edo dudaren arabera bi harreman zerbitzu mota emango ditugula: automatizatua edo pertsonala. Arazoa edo duda konplexua izanez gero, harreman pertsonala izango da eta bestela zerbitzu automatizatua izango da eta zerbitzu automatizatuarekin, bezeroari ez badiogu laguntzen, harreman pertsonala emango diogu.

